

50. FITXA BIZKAIA - Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten udalerriei eta mankomunitateei emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jardueretarako dirulaguntzak, 2024ko ekitaldiaren kontura

Nori zuzendua: Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten udalerriak eta mankomunitateak.

Sarbide-esteka: <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Erreferentziazko araudia: [Bizkaiko Foru Aldundiaren 83/2024 FORU DEKRETUA, uztailaren 18koa, zeinaren bidez onartzen baitira, 2024ko ekitaldiaren kontura, Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten udalerriei eta mankomunitateei dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jardueretarako](#)

Eremuak: Berdintasuna

Zenbatekoa: 217.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/09/02tik 2024/09/30era

Laburpena

Dirulaguntza honen bidez, erregulatu nahi dira 7.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriei eta mankomunitateei **emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko** jardueretarako emango zaizkien laguntzak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduerak egiteko proiektuak diruz lagunduko dira, hala nola:

- Emakumeen ahalduzko pertsonal, kolektibo, sozial eta/edo politikorako proiektuak: partaidetza-prozesuak, emakumeen egiturak edo sareak sortzea edo indartzea, ikastaroak eta tailerrak, etab.
- Berdintasun-politikak zeharkakotzeko proiektuak.
- Lan-proiektuak gizon eta mutil gazteekin.

- d) Aisialdi eta jai-guneetan genero-ikuspegia txertatzeko proiektuak.
- e) Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako proiektuak.
- f) Haurrekin egiten diren jardueretan genero-ikuspegia txertatzen duten proiektuak.
- g) Azterlanak edo diagnostikoak egitea udalerrian, desberdinkeria-egoeren gainean, batez ere, eremu sektorialetan (jaiak, kultura, kirolak, aisialdia...).
- h) Genero-ikuspegia duten proiektuak zainketen arloan.
- i) Udalerrian berdintasun-sektore estrategikoetan prozesu eraldatzaileak sortzen dituzten proiektuak (zainketen banaketa, landa-eremua, adineko emakumeak eta bakardadea, zahartzea, hirigintza eta joan-etorriak...)

Bereziki balioetsiko dira **ikuspegi interseksionala** integraturik duten proiektuak. Ikuspegi interseksionalak aukera ematen du, batetik, proiektuaren garapen globalean modu estrukturalan ikusarazteko eta txertatzeko generoaz harago ere emakumeen bizitzan eragiten duten identitate eta kategoriak (etnia, klasea, dibertsitate funtzionala, sexu-orientazioa, migratzaile/errefuxiatu izaera, adina, nazionalitatea, erlijioa, landa-jatorria, etab.), eta, bestetik, ulertzeko nola teilakatzen diren identitate-kategoriok sexuarekin eta sortzen dituzten diskriminazio eta zapalketa egoerak.

Udalerrian edo mankomunitatean garatu behar dira oso-osoan proiektuak.

Eskatzaileek, gehienez ere, proiektu bat aurkeztu ahal izango du.

Mankomunitate batek eskaera bat aurkezteak ez du eragotziko mankomunitateko kide den udalerrri batek eskaera bat aurkeztea.

Gastuetarako aldi hautagarria

Proiektuak **2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra** egin behar dira.

Laguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzen zenbatekoa **1.200 euro** izango da gutxienez eta **10.000 euro** gehienez